

**DONOSTIA HIRIKO TREN TURISTIKOAREN GARRAIOARI BURUZKO
ZERBITZUAK, ARRUNTAK ETA EZOHIKOAK, ESKAINTZEKO
KONTRATAZIORAKO LIZITAZIOA, PROZEDURA IREKI BIDEZKOA**

ESLEIPENAREN JAKINARAZPENA

Ebaluazio Batzordeak igorritako proposamena ikusita eta behin San Sebastián Turismo-Donostia Turismoa SA enpresako Kontratazio-organoak igorritako dokumentazioa eskatzeko errekerimendua esleipenerako hautatutako lizitatuak hots, JULIÁ/VIZTOR UTE (Autocares Juliá S.L, Juliá Travel S.A., Viztor Turística S.L) behar bezala beteta, Kontratazio-organoak Donostia hiriko tren turistikoaren garraio-zerbitzua, arrunta eta ezohikoa, emateko kontratua enpresa horren alde esleitzea erabaki du.

Ebaluazio Batzordeak dagokion Klausula Ekonomiko Administratiboen Pleguan aurrez ikusitako proposamenen balorazio-irizpideekin bat eginda aurkeztutako eskaintzak aztertu eta baloratu ditu, proposamen teknikoari 70 puntu arte eta proposamen ekonomikoari 30 puntu arte emanda.


5 izan dira enpresa lizitatuak eta ez da kontratazio-prozeduratik hautagairik baztertu.

Azkenean, JULIÁ/VIZTOR UTE (Autocares Juliá S.L, Juliá Travel S.A., Viztor Turística S.L) enpresa elkarteak izan da, 58,46 punturekin (42 puntu proposamen teknikoan eta 16,46 puntu proposamen ekonomikoan) balorazioaren zenbaketa orokorrean puntuaziorik altuena eskuratu duena, eskaintza ekonomikorik onena aurkeztu duelako, Klausula Ekonomiko Administratiboen Pleguan aurrez ikusitako proposamenen balorazio-irizpideen arabera. Kontratua hemen adierazitako prezio unitarioekin egikariturako da eta 8 urteko iraupenarekin, urtebeteko epeetan luzatu ahal izango dena, gehienez beste bi urtean:

- Tren turistikoan garraio arruntaren zerbitzua emateagatik prezio unitarioak: 2,40 euro bidaiari gazteagatik eta 4,10 euro bidaiari helduagatik.
- Jarduerak egitetik eta ezohiko zerbitzuak eskaintzetik lortutako emaitzak proportzio honetan banatuko dira: % 100 SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, SA.enpresarentzat.
- Esplotazio publizitarioak eta bestelako edozein aprobetxamendu ekonomikok lortutako emaitzak: % 100 SAN SEBASTIÁN TURISMO/DONOSTIA TURISMOA, SA.enpresarentzat.

Jakinarazpen hau igorri eta hamabost egun balioduneko epea igarota eta kontratua formalizatzeko errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita bost egun naturaleko epean formalizatuko da kontratua.

Donostian, 2013ko ekainaren 27an



Juan Karlos Izagirre Hortelano
Donostia Turismoko lehendakaria
Presidente San Sebastián Turismo